

Duela ia urte bete Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasun saileko foru diputatuak, Josu López Ubierna jaunak, A625 errepidearen proiektuan egindako aldaketak aurkeztu zituen, Lur Jareetako mozioko eskakizunei erantzuna emateko asmotan.

Aldaketak zeozer esatearren, proiektuak ia bere osotasunean berdin mantzentzen baitzen. Guztizko okupazio azalera 540.000 m² izango dira eta Foru Aldundiak kontrataturiko enpresak (Fulcrum) egindako aldaketa bakarra errotonda baten irteera batean kurbaren erradioa estutzea izan zen, guztizko azalera 6000m² tan minimizatuz, hau da, proiektu osoaren %1a minimizatu zen. Aldaketa minimo hau adar jotzea izan zen guretzat hainbeste bilera hainbeste eskakizun proiektu basatia proiektu jasagarria bihurtzeko, eta azkenik horixe zen aldatzeko zuten borondatea. Makilaje hutsa!

Apirila aldera, ISVIAL enpresak egindako eta Orain Amurrioren ekarpenik gabe egin ezin genuena: proiektuaren aldaketa egingarria. Hau izan da betidanik alderdi politikoeekin, Urduña eta Amurrioko alkateekin, zein Arabako Foru diputatua eta teknikoekin izandako bileretan eskatu digutena, hots, proposamen egingarri bat. Askotan esan izan digute dena nahi genuen bezala ezin zela egin eta hara hor araudiaren barne dagoen proposamen berri bat zeinetan guk asko galtzen genuen. Honetan lotura baten aldaketa proposatzen zen, azalera eta diru kantitatea asko gutxitzeaz gain segurua zelarik. Eta horri ere ezezkoa eman diote.

Duela hilabete esan zuten urtarrilean obra lizitatuko dutela jarraian hasteko asmoa dutelarik. Oraindik sinistu ezinean gabilta baina hauteskunderen hurbiltasuna ikusita estrategia politiko ona dela deritzogu. Azkenean gure Herri txiki eta zatikatu honetan horrela lortzen baitira proiektuak aurrera ateratzea guda politiko bihurtuta, tamalez. Jada oraindik ezjabetzak pendiente zituztenei eta azalera gehiago kenduko dieten batzuei deitu diete. Hasierako puntura bueltatu

gara, hamaika bilera, eskakizun eta buruhausteren ondoren, azkenik gure iritzia mespretxatua izan da. Ez gurea bakarrik, Lur Jareetako mozioa sinatu zutenena, alderdi horiei boza eman dieten arabar guztiona ere.

Arabako Bide Azpiegituren eta Mugikortasun saileko web orrialdean sailaren lerro estrategikoen artean hauek aurkitzen dira:

- “Arabako bide azpiegiturak modernizatu, proiektatu eta hobetzea, errepide sare segurua eta kalitatezkoa lortzeko, herritar guztientzako beharrezko erantzungo diena.” Beraien aburuz helburu hau %100ean lortuta dago. Gure iritziz ez, gure kasuan errepideak lurraldea gehiago zatikatuko du eta abiadura handitzeak ez du ekarriko segurtasuna handitzea.
- “Nabarmen hobetzea herritarren partaidetzarekin eta arretarekin lotutako alderdiak. Horien artean, toki erakundeekiko eta lurraldeko beste erakunde batzuekiko harremanak areagotzea, arabarrekiko komunikazioa hedatzea, gure webguneko edukiak hobetuz, eta herritarrenganako laguntza zuzena hobetzea.” Honen betetze maila %75ekoa dela deritzote Foru Aldundian. Utziguzue far egiten negar ez egitearren. Bildu eta arreta eskeini bai egiten duzuela, baina azalean geratzen da “postureo” hutsa. Ahuntzaren gauerdiko estulari baino garrantzi gutxiago ematen diezue gure iritziei.

Ematen du atzera bueltarik ez duela honek. Amets gaizto errealitate bihurtuko da eta guk gure akatsak egingo genituen baina beti egon gara ideia bera aldarrikatzen: proiektu ez basati eta jasangarria nahi genuen eta dugu, alboko herrien bizitza ahalbidetu eta errepidearen segurtasuna handituko duena baina gure herria asfaltoaren azpian lurperatu gabe. Hainbeste eskatzea zen?

Saratxo Bizirik eta Saratxoko Administrazio Batzarra